

{ koaderno } **Amaia Nausia Pimoulier**

Beraien mina gure mina dela ulertzea

Ezkontzaren egunean bertan arazoak hasi zirela esaten zuten batzuek. Besteek, berriz, elkarbizitzaren hurrengo hilabeteetan. Dena den, auzitegian fiskalaren galderei gehiengoak erantzun zien bikotearen arteko arazoan lekuko izan zela. Esate baterako Pedro Insaustik, Juan eta Mariaren auzokideak, esan zuen bikotearen etxearen lau hormetatik harago entzuten zirela jipoiak, oihuak eta negarrak. Kalearen beste aldeko dendariak, berriz, behin baino gehiagotan ikusi zuela Maria negarez eta, gutxienez behin, aurpegi masaila morearekin. Epaileak Mariari galdetu zionean zergatik ez zuen bere senarra aurretik salatu emakumeak burua makurtu zuen eta hasieran lotsa sentitu zuela, gero Juanen barkamen eskaerak sinistu zituela eta, azkenean, beldurra sentitu zuela adierazi zuen. Baina, egia esateko, berak ere ez zekiela oso ongi nola erantzun galdera horri aitortu zion epaileari. Bere guraso eta auzokideei esker bizirik jarraitzen zuela aitortu zuen eta, euren salaketarik gabe, ziur zegoela dagoeneko hilda egonen zela.

Maria epaitegi horretatik ateratzerakoan, jakinda epaileak arrazoia ematen ziola eta aurrerantzean bere torturazalearekin elkarbizitza eten egiten zela, ez zen aske sentitu. Epailearen galdera behin baino gehiagotan etorritzen zitzaion burura, «eta zergatik ez duzu zure senarra lehenago salatu?». Erruaren ziztada sentitu zuen eta, gurasoen etxera laguntza eske joan zen unean bezala, burua makurtu zuen. Eskerrak bere auzokideak hor zeudela, babesa emateko eta gertatutakoaren lekuko izateko.

Mariaren istorioa aste honetan irakurri eta entzun ditugun beste hainbat esperientziaren oso antzekoa da. Azaroaren 25ean emakumeen indarkeriaren kontrako egunarekin batera agerian gelditu da hainbat emakumek oraindik bizi duten amesgaiztoa. Baina Mariaren kasua ez da aste honetako istorioa, ezta pasa den astekoa, edo pasa den urtekoa ere, orain dela 400 urte gertatuko istorioa baizik. Maria Etxaleku Iruñeko auzokidea zen eta 1615. urteko azaroan Juanek ematen zion «bizitza txarra-ekin» kezkatuta, auzoko bizilagun agurgarrienen ordezkaritza talde batek Nafarroako Auzitegi Gorenera jo zuen justizia bila.

Garai horretan, gaur egun bezala, emakumeen kontrako indarkeria zabaldua zegoen. Azalpenak, gaur egun entzuten ditugunen oso antzekoak; gizonaren nagusitasunaren gaineko sinismena, gizon eta emakumeen arteko desoreka ekonomikoa eta, azken finean, patriarkatuaren kulturaren zama. Baina, Mariaren kasuan salaketaren ardura ez zen bakarrik emakumearen sorbalden gainean kokatzen, komunitate osoa inplikaturik zegoen, agian mende horietan elkarbizitza eta bake soziala norbanakoaren gainetik kokatzen zirelako.

Horren isla Iñaki Reguerak eskaintzen dizkigun datuak, Euskal Herrian XVI. eta XVII. mendeetan emakumeen aurkako indarkeriagatik egindako salaketen laurdenak soilik zeuden biktimak bultzatuta, hau da, emakumeak berak. Beste hitz batzuetan, salaketen hiru laurdenak bizilagunek, senideek edo fiskalak berak egiten zituzten. Gaur egun, berriz, 2013ko datuen arabera, kasuen %70ean ema-

XVI. eta XVII. mendeetan emakumeen aurkako indarkeriagatik Euskal Herrian egiten ziren salaketen laurdenak zeuden biktimak bultzatuta. Hiru laurdenak bizilagunek, senideek edo fiskalak berak

kumea da salaketa egiten duena. Azken lau mendeotan eman den komunitatearen indarraren galeraren isla.

Behin eta berriro gure politikariek, komunikabide eta erakundeek errepikatzen dute emakumearen kontrako indarkeria salatu behar dela, eta horrekin guztiz ados nago. Baina mingarria da ikustea nori zuzenduta dagoen deia, emakumeei esaten zaie beraien ardura dela 016 telefonora deia egitea, beraiek izan behar dutela lehenengo urratsa ematen dutenak. Noski, emakumeen artean kontzientzia-zio maila areagotzen den heinean arazoaren konponbide-tik gertuago egonen garela egia da. Baina egia da ere gizartearen inplikazioa areagotu behar dela, emakumeak errudun sentiaraztea ez dela irtenbidea. Komunitatearen papera indartu beharko genuke, norbanakoa babestuz, talde sentimendua areagotuz. Alegia, beraien mina gure mina dela ulertuz. •

Gaia zinez mami-tsua hartu du hizpide, baina «kanpoko lagunak» maiz pausatzen dizkio-ten galderek akuilatuta, ehun orri eskasetan sartu ditu azken mendeetako gorabehera historiko nagusiak Peio Etcheverry-Ainchartek, Pirinioen alde batera zein bestera Euskal Herriko egungo egoera soziopolitikoa ulertzeko lagungarri izango delakoan. Joera, sentipen edo ideologia prototipoak nolatan sortu diren azaltzen «baina inolaz ere ez determinatzen» dituzten gertaera historikoak jaso ditu Elkar etxearen eskutik frantsesez argitaratu berri duen liburuan.

Zer bilatzen duzu azalpen historiko honekin?
Helburu pedagogikoa du. Oro har historiari buruzko liburuak luzeak izaten dira, eta, jendeak gero eta gutxiago irakurtzen duenez, horrelako liburuxkak behar ditugula uste dut, 100 orrialdekoak, salneurri txikikoak eta gai enblematiko batzuen klabe nagusiak jasotzen dituztenak. Ipar Euskal Herrian aber-tzaletasuna Hego Euskal Herrian baino apalagoa zergatik den galdetu zidan Parisko lagun batek eta galdera horrek bultzatuta ekin nion lanari. Galdera arras politikoa da, baina historiaren ikuspegitik merezi zuen aztertzea bi aldeak noiztik, nola eta zergatik hasi ziren bereizten. Zergatik oraindik eraikitzen ari den ikuspegi edo sentimendu nazionala ez den berdin gartzten ari bi aldeetan. Hainbat kontzeptu eta egoera argitzeko atzera egin behar denez, Erdi Aroan hasita egin dut errebasoa.

Erdi Aroa aipatu duzu, baina garai hartako egiturek ez zuten ez nazio ez estatu izaerarik...
Egun joera handia dago, ez bakarrik Euskal Herrian gainera, egungo nazioen ernamuina Erdi Aroan bilatzekoa. Hori anakronismo hutsa da. Garai hartan jendearen arteko harremanak ez ziren nazio sentimendu baten inguruan egituratzen. Harreman oso feudala zen, norbai-

«Egungo nazioen ernamuina Erdi Aroan bilatzeko joera handia dago orain, baina hori anakronismo hutsa da. Garai hartan ez zen nazio sentimendurik. Erlijioa zen faktore bateratzaile bakarra»

«Matalazen oldartzea ez zen euskaldunen eskubideak defenditzeko lehen oldartze abertzalea izan. Hori mito bat da. Hura oldartze fiskala izan zen, errege arrotz batek tokiko eskubide fiskalak kendu nahi zituelako»



tzuen jauntxoak eta norbaiten morroiak ziren, baina ez frantses, ez espainol, ez gaztelar, ez aragoitar, ezta euskaldun ere. Jende guztia biltzen zuen sentimendu bakarra erlijiosoa zen, hots, kristautasuna zen faktore bateratzaile bakarra. Estaturik ere ez zen. Jauntxo edo errege bati interesatzen zitzaion bakarra zergak lortzea zen eta, kasu hoberenean, armada bat altxatzea. Ez zen beste harreman berezirik, adibidez herritartasuna, bozkatzeko gaitasuna... Erregeek ez zuten estatu bat eraikitzeko borondate berezirik. Hortaz, ez zuten administrazio sortzen, edo, sortzekotan, oso ahula zen.

Nafarroako erresuman, agian?
Estatuak, zentzu modernoan, XIV. edo XV. mendeetan hasi ziren pixkanaka sortzen. Nafarroako erresumak ere administrazio enbrioi bat bazuela esan daiteke, baina ordurako beste influentzia gune batera, frantse-sera hain zuzen, pasatzen hasia zen, eta hegoaldean erresumaren konkista hasia zen.

Bi aldeak bilakaera ezberdina izaten hasiak baziren ere, identitate komun bat zutela sentitzen zuten?
Ez. Identitatea aipatzen delarik ezin da erran jendeak ez zuela identitaterik, jakina baina kon-

tzeptu oso konplexua dela. Identitate mota anitz zeuden (emazte, erlijiosoa, soziala...), baina nazio identitaterik ez. Adibidez, anitzetan aipatzen da Matalazena errege frantsesaren kontrako eta euskaldunen esku-bideak defendatzeko lehen oldartze abertzalea izan zela. Ez zen horrela izan. Mito bat da, Benito Lertxundiri esker ere handitu dena. Bere kantan “tirano arrotzen ohiltzeko” esaten duenean ez da erregea arrotza zelako, baizik eta tokiko eskubide fiskalak apurtzen zituelako. Oldartze antifiskala izan zen, ez oldartze antifrantsesa. Gainera, garai hartan zuberotarrek ez zu-



«Lehen Mundu Gerran hil zirenek ordaindutako odolaren zergak sustraitu zuen frantsestasuna»

ten ikuspegi zuberotarrik ere; hangoak ziren, beren haranekoak, tokiko instituzioak zaindu nahi zituzten eta altxatu egin ziren, baina Euskal Herriaren ikuspegirik ez zuten. Bizkaian antzeko zerbait gertatu zen. Baziren tokiko instituzio batzuk erregeek ahuldu edo kendu nahi zituztenak eta erakunde horiek atxikitzeko oldartu ziren. XIX. mendean nazioak eraikitzen hasiak ziren jada baina karlistak ez ziren abertzaleak, beren tokiko antzinako foroak babestea bilatzen zuten, foralistak ziren. XX. mendean EAJ sortu zenean hasi zen hedatzen abertzaletasun kontzeptua. Ez da nahasi behar.

Ipar Euskal Herria Frantzian integratzeko asimilazio prozesua Iraultzarekin hasi zen, baina kosta egin zitzaion Estatuari hori lortzea, ezta?

Bai, Iraultzan kontzeptu berriak sortu ziren (herritartasuna, eskubideak...), baina gerora herrien integrazioa erdiesteko ideia zinez jenial batean oinarritu zen Estatua: *petite patrie*, *grande patrie* (aberri txikia, aberri handia). Espainian ez bezala, non herriekiko jokamoldea zapaltzaileagoa izan zen, Frantzian ez zen bortitza, paternalistagoa zen. Esan beharra dago, zentralismoaren historia, estatu zentralistarena alegia, errepublika baino mende bat lehenago eraikitzen hasia zela, monarkia zentralistarekin hain zuzen. Baina orduan, zentro politikoak dena hartzen zion periferiari, ordainetan herritarrei deus eman gabe: ez zerbitzurik, ez modernitaterik, ez afera politikoetan parte hartzeko aukerarik... Iraultzaren ostean, Estatua, zergen eta armada egitearen truke, herritartasuna (*citoyenneté*), bozkatzeko eskubidea, babes sozial batzuk, hezkuntza nazionala... ezartzen hasi zenean, jendea jabetzen hasi zen truke horrek interes bat bazuela beraientzat, are gehiago garai hartako Ipar Euskal Herria arras pobrea zela kontuan hartzen bada.

Halere, euskararen baztertze prozesua ez zen gozoa izanen...

Bortitza izan zen, bai. Euskaldunek beren hizkuntza kentzeagatik sufritu egin zuten, baina, aldi berean, beharrezko etapa zela barneratu zuten, modernitatearen jauzia emateko eta baserri mundutik ateratzeko prezioa zela pentsatu zuten. Hizkuntzaren bazterketa faseak, halere, lau belaunaldi iraun zituen. Hezkuntza nazionalaren bitartez ikasi zuten modernitatearen hizkuntza frantsesa zela, historia betiereko Frantziaren historia zela, gauza bera geografian, muga “naturaletan”, ibaietan...

Eta horrela sortzen joan zen frantsestasun sentimendua...

Jakina. Hala eta guztiz ere, ahaztu ezin den beste elementu bizi-

ki inportantea dago tartean: odolaren atxikimendua, alegia. Eskolaren bidez nazio bat integratzen irakasten da, baina hori dena oso teorikoa da, jakin arren eguneroko bizitzan ahazten den zerbait da. Aldiz, lau urtez Lehen Mundu Gerran etsai komun baten kontra borrokatzea beste gauza bat da, horrek asko lotzen du. Bretoi, korsikar, paristar, euskaldunak, Frantzia osoko herritarrek aberri handia –Frantzia– defendatzeko elkarrekin hiltzea eta hori dela aberri txikiek aberri handiari egiten dioten ekarpena sentitzeak, horrek asko lotzen du. “Odolaren zerga” deituko geniokeen horrek sustraitzen du odolean nazio ikuspegi edo sentimendu hori. Lehen Mundu Gerra aitzin nazio frantsesaren eraikuntza prozesua ez zen arras bukatua, baina, horren ondotik, jende guztiak barneratu zuen frantsesak zirela. Gainera, ahanzteko joera izango balitz ere, hor dau-de herri guzti-guztietan, erdi-erdian ezarritako oroitarriak, urtero armistizioaren egunean egiten diren ekitaldietan loratuak, arbasoak hil egin zirela edo frentetik elbarrituta eta zaurituta itzuli zirela sekulan ez ahanzteko. Hor eraikitzen da, hain zuzen, *morts pour la Patrie* sentimendua.

Hegoaldean, aldiz, ez zen horrelakorik gertatu...

Batere ez. Nazio bat eraikitzeke izan ziren antzeko bitartekoak (hezkuntza nazionala) edo jazoerak (Independentzia gerra, zerbitzu militarra...). Gerora Espainiaren aldeko Kubako Gerra ere izan zen, non 3.000 euskaldun hil ziren. Baina gerra hori desastre baten kronika izan zen: jendea behartuta, sentimendurik gabe joan zen eta Espainiarekiko atxikimendurik ez zuen bate-re sortu. Gainera, garai hartan modernizatzen ari ziren bi gu-neak zentro politikoaren periferian zeuden (Euskal Herria eta Katalunia). Bertako burgesia sortu zen, prentsa, elektrizitate publikoa, burdinbidea... Gertuko lurraldean bertan zegoen garapen horretara zentro politikora baino gehiago atxikitzen joan



Bob EDME

PEIO ETCHEVERRY-AINCHART HISTORIALARIA

Argitaratu berri duen liburuan Ipar eta Hego Euskal Herriko egoera soziopolitiko horren desberdineria iristeko izandako jazoera historiko nagusiak azaldu ditu.

Arantxa Manterola

zen jendea. Bertako burgesia, botere ekonomikoa, euskal nazionalisten (EAJ) alde jarri zen. Horregatik diot Hego Euskal Herrian bilakaera zentrifugoa izan dela, eta, Iparraldean, zentripetua. Agian, Espainiak, Frantziaren *petite patrie-grande patrie* ideia jorratu izan balu arrakasta ukango zukeen herrien asimilazio prozesuan, baina XVI. mendetik XX.era Errege Katolikoen urrezko garaiaren nostalgian bizi izan da Espainia eta horrek ez du balio nazio bat eraikitzeko.

Gainera, ez da izan 1789ko Iraultza bezalako ezer...

Eta azken gerlak beti periferiaren eta zentro politikoaren artekoak izan dira (karlistadak, 1936ko gerra zibila eta, ostean, 40 urteko diktadura). Hegoaldean konfrontazio izugarria izan da, eta horregatik bi identitate horiek banatzen dira eta oso zaila da, egun ere, espainol eta euskaldun batera izatea, hala sentitzen diren batzuk badiren arren, jakina. Iparraldean aldiz, norbaiti galdetzean, baita arrunt frantsesa den eskuineko bati ere, aldi berean euskalduna dela esango du. Abertzale oso militanteek soilik dute Euskal Herria aberri bakartzat.

Euskal auzia asimetriaz jositakoa dela diozu...

Gutxienez badira bi asimetria eta, beharbada, Nafarroan hiru garren bat ere bada. Baina horrenbeste sakontzea biziki konplikatu izanen litzatekeenez, bi asimetriatan geratu naiz. Lehenengo arras klasikoa da, estatu-nazio independente eta normalizatu baten eta gutxiengo nazional baten artean gertatzen den gatazka asimetrikoa, alegia. Aldi berean, bada bigarren bat Ipar zein Hego Euskal Herriaren artekoa. Bi historia, bi prozesu ezberdin eta horien ondorioz bi egoera arras ezberdin ere.

Euskal gatazkaren irtenbidea ez da, zure ustez, historian bilatu behar. Alta, historiak izugarri markatu du...

Historiak gauzak azaltzen ditu, ez ditu determinatzen. Markatu hitzarekin historiak destino bat



Jon URBE | ARGAZKI PRESS

IBILBIDEA

Publikoki bere militantzia politikoagatik ezagunagoda den arren, historialaria da Peio Etcheverry-Ainchart. Elkar argitaletxean ari da lanean eta bertan argitaratu du **«Pourquoi est-on indépendantiste à Hernani et pas à Bayonne»** (Zergatik dira independentistak Hernanin eta ez Baionan).

agindu edo finkatuko lukeela erran nahi baduzu, ez. Izan delako horrela izango dela pentsatzea, ez. Ez da hain matematikoa. Gauzak mendeetan horrela edo hala izan badira ere, horrek ez du esan nahi 50 urtetan aldutuko ez direnik. Hernani eta Baiona jarri ditut adibide pixka bat antagonismoa azaltzeko, baina Enkarterriko herri batean ere abertzaletasunak ez du pisu bera, eta Baiona eta Baigorriren artean ere ñabardura anitz dira geografikoki, sozialki... Egun sortzen ari diren fenomeno berriek (Europaren eraikuntza, globalizazioa) nola eragingo duten nortasunetan ikusteke dago. Mundua oso fite aldatzen da. Batek daki zer bilakatuko den. Gaurko edo biharko belaunaldiek beren borondatearen arabera eraikiko dute, baldin eta erabakitzeko eskubidea aitortzen bazaie. Horretan da, egun, gatazka.

Sakratuena kakaztu

Koldo Sagasti

Aste honetan Nafarroa zaharreko azken elizako hautsa ere harrotu du Abel Azcona artista-ren instalazio batek. Egileak berak sare sozialetan zabaldu duen bezala, 242 mezatara joan, ostia kontsokratuak bildu, eta hitz erraldoi bat osatu du haiekin: “pederastia”. Elizaren egitura osoa muineraino kutsatzen duen jokaera gaitzesgarria salatu nahiko zuen artegileak, edota erakunde katolikoak giza eskubideen aurkako eraso horiek alfonbra azpian ezkutatzeko baliatzen duen zurikeria.

Herrialdeko *lobby* kristauak, baina, apaltasunaren bertuteaz predikatu beharrean, iraintzat hartu du kritika artistikoa, eta gurutzada abiatu du Azconaren aurka. Ehunka lagun bildu dira erakusketa aretoaren aurrean arrosarioa erreza-tzera, tximista jainkotiar batek sakrilegio hura suntsituko zuen esperantzan. Alferrik. Hainbestearinokoa izan da botere talde horren presioa, non Iruñeko auzapez jaunak berak heresia salatu behar izan duen prentsa agerraldi batean. Horretan, behintzat, aldaketaren alkateak erakutsi du aldaketa gutxi izan dela Nafarroan.

Aferak, ezinbestean, “Charlie Hebdo” astekariaren aurka urtarri-lean gertatutako erasoak ekarri dit gogora. Orduan adierazpen askatasunaren heroitzat aurkeztu zizkiguten aldizkariako langileak. Mundu osoak jantzi zuen lazo beltza. “Mundu zibilizatuko” agintariak pankarta buruan agertu zitzaizkigun, baita Netanyahu bezalako giza-terriaren aurkako kriminal bat edo beste ere. Eta sinestarazi ziguten erasoaldiaren biktima bilakatu izanak zilegitasuna ematen ziela edozeren kontura txisteak egiteko. Baina, tira, Parisekoek mairuei, txi-rotutako herrialdeetako emakumei eta, oro har, zanpatuei egiten zieten trufa. Iraindua eliza denean, oso bestelakoa da adierazpen askatasun grina. Askatasuna nahi badugu, izan dadila erabatekoa, baita sakratuena kakazteko ere. •

PUBLIERREPORTAJEA

ERRONKARI

Makilen esku aldaketak
abiatzen du neguaren
gozamena

TURISMOA

Pirinioetan murgilduta, Erronkari bere natura basatigatik da ezaguna, baita bere gastronomia gozoagatik eta antzinako ohituretan oinarritutako izaeradun herritarren-gatik ere. Burgi, Bidankoze, Garde, Erronkari, Urzainki, Izaba eta Uztarroze dira basoen ustiapenetik, abeltzaintzatik eta turismo bizi den bailara osatzen duten herriak. Ezka ibaiak zeharkatzen du bailara iparralde-tik hegoaldera eta bere bidean Burgiko arroila bezalako ikuski-zun naturalak eskaintzen ditu.

Turismo.navarra.es webgunean jasotzen den moduan, aukera zabala da Erronkarin: basoak, iraupen eskiko pistak, Hiru Behien Zerga –Europako ohitura zaharrenetarikoa da eta urtero uztailaren 13an berritzen da– edota Almadia Eguna –urtero maiatzaren hasieran ospatzen da– bezalako tradizio bereziak, kalitatezko gastronomia –gazta eta artzain apurrak adibidez–, Julian Gayarre bezalako pertsonaia ospetsuen inguruko museoak, desnibel desberdinetako ibilbideak, Hiru Erregeen Mahaia (Euskal Herriko mendi altuena izateagatik ezagutua)...

Roncalia.com orrian azaltzen den moduan, bihar abiatuko da 2015-2016 neguko denboraldia. Udan zehar beraien artaldeekin Puerto Grande zonaldeko larreak bete dituzten abeltzainek, eskiazaileei txanda emango diete eski makilak eskura emanaz, eta, horrela, espazio bera kudeatzeko bi modu desberdinen arteko uztarketa antzeztuko dute. Txistorraz, ogi-mami dastatzez eta fanfarre doinuaz gozatzeko jai egun ederra izango da.

IRAUPEN ESKIA

Eskia maite dutenentzat Larrako natur erreserban kokatutako Erronkari Bailarako Mendi Zentroa interesgarria izan daiteke. Izabatik gertu dago eta era guztietako zerbitzu eta baliabideak –material alokairua, taberna, kafetegia, terraza, izotz jauzia, eguzkia hartzeko eremua eta sauna– eskaintzen ditu, bai eta eskiaitzeko hamar kilometro

Makilak artzainen eskuetatik eskiazaileen eskuetara igarotzen direnean hasten da neguko denboraldia Nafarroako Pirinioetan. Erreportaje honetan mendiak estaltzen dituen elur geruzaz gozatzeko hainbat proposamen jasotzen dira, iraupen eskitik hasi eta hegaztien behaketaraino.



Goian, elur erraketekin Urbanen; behean, iraupen eskia egiten Belaguan.

Iñigo URIZ - Eduardo BUXENS

pista ere. Aipatu Roncalia webgunean eskura dago informazio guztia, baita une oro pistek duten egoeraren inguruko xehetasunak ere. Ezaugarri bertsuak dituzten bi eremu daude iraupen eskia egiteko: Erronkariko Mendi Jardueretako Zentroa eta Abodi-Irati eski zentroa.

Lehenean 19 kilometro daude prestatuta eta bi eremu desberdinetan banatuta dago: Ferial-Zampori –1.600 metroko batez besteko altuera du– eta La Contienda –bost kilometro ditu Arlas mendiaren magalean, 1.700 metroko batez besteko altuera du eta hiru ibilbide daude–. Abodi-Irati eski zentroa Iratiko baso ezagunean dago eta batez beste 1.400 metroko altuera du. Eskiaitzeko 20 kilometro eta elur erraketekin ibiltzeko bi pista ditu. Zailtasun handirik gabe, eskia maite duten guztien mailara egokitzen dira pistak.

ELUR ERRAKETEN AUKERA

Elur erraketak aspalditik erabiltzen dira elurra maiz egiten duen lekuetan; gaur egun, eskia janztera atrebiltzen ez direnei goi mendietan elurretan ibiltzeko aukera paregabea eskaintzen diete. Pistatik kanpora kokatutako eremu alternatiboez gain, aipatu bi eski estazioek prestatutako zirkuitu txikiak ere eskaintzen dituzte. Elur erraketarik ez duenak, ekintza espezializatutako enpresa batean aloka ditzakete (Turismo.navarra.es webgunera jo). Azkar ikasteko moduko jarduera da eta, aldi berean, gozamen handia eskaintzen duena.

Mendiaz gozatzeko beste aukera bat Mirua enpresara jotzea da. Mendi gidari zerbitzua eskaintzen dute eta Pirinioetako altxorak ezagutzeko proposamenak dituzte: Iratiko basoa, Bertiz, Baztango bailara edota Urbasa-Andia parke naturala. Hegazti behaketan espezializatutako gidak ere badituzte. Norberaren neurria egindako ibilbideak, zeharkaldiak, igoerak, ekoturismo ibilbideak eta elur erraketa bideak ere badituzte aukeran. Informazioa gehiago behar izanez gero, Mirua.com webgunera jo.

BIDALKETA GASTUAK AURREZTU ETA JASO ZEURE KIOSKOAN

Gabe geratu
behar al duzu?
Eska ezazu
gaur bertan!



50€
Kutxarik gabe

55€
Kutxarekin

www.ametsenliburua.info

ametsen liburua
el libro de los sueños | le livre des rêves | the book of dreams

KUPOIA KIOSKOAN EMATEKO **AZKEN EGUNA, ABENDUAK 6, IGANDEA**

Erosleak betetzeko

Izena

Abizenak

Helbidea

Herria Posta kodea Herrialdea

Helbide elektronikoa Telefonoa

Liburua kutxa gabe (50 €) ☐ Liburua kutxarekin (55 €) ☐

Salmenta lekuan betetzeko

Salmenta lekua

Herria

Herrialdea

DATU PERTSONALEI BURUZKO LEGE OHARRA Datu pertsonalak babesteko, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakori jarraiki, erabiltzaileak baimena ematen du bere datuak TAI GABE DIGITALA, SL enpresa titular duen fitxategi batean sartzeko, eta datu horiek erabili ahaliko dira bai merkataritza eskaintzak eta bai produktuei eta zerbitzuei buruzko informazioa bidali ahal izateko. Erabiltzaileak, halaber, bere datuak kontsultatzeko, zuzentzeko, ezetzatzeko eta aurkaratzeko eskubideak ezagutzen dituela adierazten du. Eskubide horiek Tai Gabe Digitala, SL-ren egoitza sozialean baliatu ahaliko ditu, honako helbide honetan: JF Gilisagasti 2-321, 20018-Donostia (Gipuzkoa).

LIBURUA JASOTZEKO AGIRIA

Eskatzailearen izen-abizenak

Salmenta lekua



ametsen liburua
el libro de los sueños | le livre des rêves | the book of dreams

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



FRANTZIAKO ONDAREAREN ETA ARKITEKTURAREN MEDIATEKA

IRUDIAK TESTIGANTZARI GAIN HARTU ZIONEKOA

Garai batean, bidaiariak beren testigantzen bidez ematen zuten bisitatzen zituzten lekuen inguruko ikuspuntua. Kasu askotan, testigantza horiek «in situ» eginiko marrazkiekin osatzen ziren. Argazkigintzaren jaiotzearekin, ordea, testigantzak argazkiengan-dik ordezkatu ziren. Hala egin zuen Henry de Lestrangeko kondeak ere. XIX. mendean Euskal Herrian hartu zuen lur frantses aristokratik, eta Hondarribian, Hendaian eta Pasaian eginiko hamaika argazki utzi zituen, 1896. urtearen bueltan eginak guztiak ere, goikoa kasu. Egun, bere argazkiak Parisen aurkitzen dira, Frantziako Ondarearen eta Arkitekturaren Mediatekan.



Maria Jesus Telleria, Segura Irratiaren estudioan. Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

infraganti

MARIA JESUS TELLERIA

Segura Irratiko esataria da Maria Jesus Telleria. 40 urte baino gehiago daramatza jardunean, baina denbora labur baten buruan itzali egingo da bere ahotsa; erretiroa hartuko du. Urte hauetan asko aldatu da irratia egiteko modua, baina berak bereari eutsi dio; telefonoa ireki eta herritarrei hitza ematen jarraitzen du, entzulea saioaren parte eginez.

Aurpegiz baino, ahotsez suerta daiteke ezagunagoa Maria Jesus Telleria, Segura Irratiko esataria. 40 urte baino gehiago

daramatza esatari lanetan, baina bere ahotsa itzali egingo da denbora labur batean buruan; erretiroa hartuko du Maria Jesus Telleriak. 40 urte hauek eman diotenaz, Segura Irratiaren osasunaz eta, orokorrean, irratia

izan dituen aldaketez galdetu diogu.

Segura Irratiaren hastapenak ezagutzeko 1956. urteraino egin behar da atzera. Herriko apaiza izan zen irratia sortu zuena; «gizon mugitua, egonezina zuela zirudien», gogoratzen du Telleriak. «Katxarromania» zuela esaten omen zuten eurak, esku artean beti zerbait zuela eta. Hala, bailarako herritarrei euskarazko zerbitzua emateko helburuarekin abiatu zuen Zesareo Elgarresta apaizak irratia proiektua: «Arrosarioa erreztzeko, zorion agurrak luzatzeko, negozioak egin ahal izateko...». Herritarrek in harreman zuzena izango zuen irratia sortu zuen, beraz, Elgarrestak, eta oraino izaera bera mantentzen du.

1956an sortu zen irratia, ordea, urte batzuen buruan itxirazi egin zuten, Arrate Irratia edo Loiola Irratiarekin batera, frankismo bete-betean. Urte batzuk itxita eman ostean, 1973an berriro ireki zituen ateak Segura Irratiak, frekuentzia-modulazioan (FM) orduko hartan; hain zuzen ere, garai horretan kokatzen dira Maria Jesus Telleriaren hastapenak irratia munduan.

Bera ez zen kazetaria, delineatzailea baizik, eta ez zekien nola funtzionatzen zuen irratia batek; irratia entzun egiten zuen, asko jota. «Irratiak berriro ateak ireki zituenean etxean aurkitzen nintzen, ikasketak amaitu berritan. Bazen gazte bat irratian lan egiten zuena, oso musikazalea bera, baina behar bat sortu zitzaien eta egun batzuetarako irratia utzi beharra zeukan. Hala, bateren bat behar eta niri eskatu zidan egun batzuetan bere tokia bete nezan», azaldu du Telleriak. «Bihar etorriko al zara?» batekin hasi eta gaur arte, egunez egun, joan da Maria Jesus irratiara: «Banekien inor ez zegoe, eta, beraz, esan beharrik ez zegoen, banekien etorri egin behar nuela».

Tradizio luzeko irratia da dagoeneko Segura Irratia; handinahirik gabekoa, gainera. «Izen handiko irratien mailara iristeko helbururik ez daukagu guk; txikira jotzen dugu, gertukorra. Lau katuk egin dugu lan he-

men, eta, horrenbestez, denok denetik egiteko konpromisoa daukagu», adierazi du Telleriak. Horrez gain, sakonak edo oso landuak izan daitezkeen gauzak egiteko aukerarik ere ez dutela gaineratu du, «eta entzulea ere daukaguna da, gauza jakin batzuk eskatzen dizkigun entzulea». Txikitutasun horrek egiten du handi Segura Irratia, eta formula hori izan da urte luzez airean mantentzeko sekretua.

TXIKITASUNEAN HANDI

Segura Irratiak ez du audientzia datuen inguruko ikerketarik egin, bestelako modu batzuk dituzte euren audientziak neurtzeko. Aurrez aipatu bezala, herritarrekiko gertutasuna da irratia balore nagusienetarikoa bat. Modu horretan, jasotzen dituzten deien arabera jakin dezakete zenbat jende eta nondik deitzen duen. «Kostaldetik –Zarautz, Orio– jende pila batek deitzen du goizeko saiora. Tolo-saldetik ere –Tolosa, Villabona, Andoain– asko deitzen dute, baina, batez ere, Goierri ingurukoa da gure entzuleria», azaldu du Telleriak.

Esaterako, elkarrizketa egiten ari ginen bitartean dei bat jaso zuten Segura Irratian, hurrengo eguneko goizeko saioan zorion agur bat emateko. «Gaur [elkarrizketaren egunean], adibidez, Zuhaitz Gurrutxagaren urtebetetze eguna da eta aginduta genion zorion agur bat eskainiko geniola. Hori hala, deiak bata bestearen atzetik jaso ditugu... topera ibili gara! Telefonoa jo eta jo izan dut goiz guztian zehar, eta behin 10.00ak jo ostean ere hots egiten jarraitu dute; ez dut musika jartzeko astirik ere izan!», azpimarratu du.

Baina badu beste modurik ere Maria Jesus Telleriak jendeak euren esanak entzuten dituztela antzemateko. «Hemen inguruan edozein dendatan sartu eta konturatzen zara irratia jarrita daukatela», azaldu du, adibide bat emanez: «Eta niri zenbait alditan gertatuko ote zitzaidan Beasain edo Ordiziara joan erosketak egitera, zerbait eskatu eta... ‘Hara! Zu Segura Irratikoa zara!’ entzun behar iza-



Lantale txikia dauka Segura Irratiak. Ondorioz, denek denetik egiteko konpromisoa daukate. Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

tea. Horrek esan nahi du entzun egiten gaituztela». ETBko «Herri txiki, infernu handi» saioan agertuz geroztik, gainera, batek baino gehiagok aitortu dio azkenean aurpegia jarri diola: «Aho-tsari aurpegia jarri diote».

GARAIK ALDATU DIRA, IZAERA EZ

Erraz esaten da 40 urteko ibilbidea duela irratian Maria Jesus Telleriak, pisu handiko motxila da hori. Urte horietan guztietan irratiak izan duen bilakaeraren zuzeneko testigu izan da bera, eta garaian garaira egokitzen jakin izan du, «zer erremedio!». Saioak egiteko eta antolatze modua ez du asko aldatu; jendeak irratiara hots egiten jarraitzen du, eta bere lanak herritarrei ahotsa ematea izaten jarraitzen du. Publizitatearen kontuan, ordea, zenbait gauza aldatu direla onartzen du: «Irratian hasi nintzen garaian publizitatea magnetofono bidez sartzen genuen.

Ondoren, berriz, 'kartutxo' izena eman genion sistema atera zen; hark ere zintarekin funtzionatzen zuen, baina kajatxo batzuetan sartuta egoten ziren. Gero minidiskoak iritsi ziren, eta egun ordenagailuz egiten dugu». Gaineratu du ez dakiela etorkizunean irrati nola eta zenbateraino aldatuko den, baina, aldiz, oso garbi du Segura Irratian beren izaera propio horrekin jarraitu beharko dutela.

Herritarrenganako gertutasun horren isla da Maria Jesus Telleriak saioak antolatze duen modua. Programazio jakin bat jarraitzen dute egunero, eta

«Ez dut denbora asko ematen saioak prestatzen. Telefonoa ireki eta deiak iristen hasten dira; izaten da egunik telefonoa isildu ez eta musika jartzeko astirik ere izaten ez dudala!»

«Nik erretiroa hartu arren airean jarraituko du Segura Irratiak, bere nortasunari eutsita gainera; gertuko irratiak izanez, herritarrek zuzeneko harremana mantenduz»

bi saio nagusi izaten ditu berak: Kalejiran, 09.00etan hasi eta 10.00ak bitartean, eta urtaroren arabera izenez aldatzen den magazina, 12.00etatik 13.30era. Aitortzen duenez ez da bezper-

ran biharamuneko saioak prestatzen ibiltzen, jendearen parte hartzea oso handia delako: «Bihar zer egingo du-dan? Zerbait sortzen bada, tapa, barrura! Eta osterantzean iristen diren oharrekin beteko

dut saioa». Buruhauste handirik ez, beraz, saioak prestatzeko orduan, telefonoak, jo eta jo, bestelako gauzak egiteko ere asti handirik ematen ez diolako.

Urte berriarekin batera utziko du Maria Jesus Telleriak Segura Irratia, «penaz». Baina, bestalde, eguneroko presa eta lotura horietatik askatzea zer den probatu nahi duela dio. «Momentu hauetan erretiroa opor kontu gisa ikusten dut», adierazi du. Irratia, gainera, entzuleen berotasunean utziko du, hala adierazten baitiote gaixoaldi edo opor buelta bakoitzean lanera bueltatzean bere ahotsa aireratzeko duenean. Maria Jesusen esana isilduko den arren, Segura Irratiak etxeko sukaldeetan jarraituko du, «zalantzarik gabe. Jarraituko du gainera –adierazi du– bere betiko nortasunari eutsita; gertuko irratiak izanez, herritarrek zuzeneko harremana mantenduz; egunean egunekoa-ri eta momentuan momentukoa-ri erantzunez, gure entzuleek eskatzen diguten moduan».

Aimar Etxeberria Korta



Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS



IKUSMIRA

BATZUETAN KORRIKA TXIKIA EZ DA JOLASA, BELDURRA DA

Bi hanken gainean ibiltzen ikasi arte, ahal bezala moldatzen gara; arrastaka, katuka, izkina guztiak eutsiz, balantzaka. Konturatze-rako, korrika gabiltza, belaun urratuak eta kopetakoak bilduz. «Eroriz ikasten da ibiltzen», esaten digute aldamenetik gureak baino askoz hanka luzeagoak dituztenek. Laster konturatuko gara, baina, guri ere hankak luzatu zaizkigun arren, gure pausajea ez dela guk nahi bezain patxadatsua. Laster konturatuko gara batzuetan korrika txikian ibiltzen garela, ez garai batean bezala jolasean gabiltzalako, beldurra dugulako baizik. Ez dakigu seguru zeri diogun beldurra, baina batzuetan estutu egiten gara bakarrik eta ilunetan, edota jendetza artean egun argitan. Garai batean izkinei helduta zutitzen ikasi genuen modura ikasi behar izaten dugu gerora pausoa seguru botatzen, norabidea eta erritmoa aukeratzen. Gorriz tindatuta daude dagoeneko pausorik eman ezin duten emakumeen zapatak, baita beren pausajea modu askean aukeratu ezin dutenenak ere.

amagoia.mujika@gaur8.info